

Ohiko dugunez, *Historia bizia* sailak zabaltzen du JAKIN aldizkariaren urteko lehen zenbakia. Oraingo honetan, zientziaren, euskaltzaletasunaren, euskal unibertsitatearen eta politikaren eremuetan lanean eta borrokan luze jardun duen izen propio bati egin diogu lekua: Jose Ramon Etxebarriari. Miren Rubio Iturria kazetariak egin dion elkarrizketa luzean, Etxebarria bere bizitza harilkatuz doa, azken berrogeita hamar urteetan Euskal Herrian izan diren hainbat egitasmo, lorpen eta gatazka lehen pertsona kontatzearekin batera. Atal honetako elkarrizketatu guztiekin gertatu ohi den legez, Euskal Herriaren historia hurbila kontatzen du protagonistak bere historia propioa kontatu ahala. Horrela, Etxebarriaren bizitzako argazki asko geure memoriaren parte dira dagoeneko, eta, gainera, gaur arte iritsi zaizkigu: lehen argazkian, Etxebarria fisika euskaraz irakasten ikusten dugu Lan Kide Aurrezki Kutxaren egutegi historikoan, Adolfo Suárezek, Franco osteko lehen presidentek, euskararen kontra supremazismo argiz esandakoak gezurtatuz; bigarren argazki batean, «Nuklearra? Ez, eskerrik asko» txapa bularraldean jarrita ageri zaigu; hirugarrenean, Espainiako Juan Carlos I.a erregea Gernikako juntetxera etorri zenekoan, *Eusko gudariak* kantatzen; laugarrenean, UEUko ikastaroren batean hitz eta pitz ikusten dugu; bosgarrenean, EHUko Leioako sarreran irakasle propioaren aldeko gatazka luzean, pankartari eusten ageri da; seigarrenean, hogeitau urte iraun zuen gatazka luze horren ondotik, berriro ikasgelan ikus dezakegu. Baditu argazki ezagun gehiago ere Etxebarriak, eta baditu argazki gabeko oneak ere, gordean pasatu direnak baina funtsezko izan direnak, hala nola eskola materiala euskaraz sortzen emandako ordu luze ikusezin horienak. Dena borroka bat da, dena borroka bera da. Dena da prozesu bat, dio elkarrizketaren azken lerroetan Etxebarriak, «eta inportanteena segitzea eta egitea» dela. Zerbaitetan nabarmentzen bada, koherentziari jarraitzen eta egin egiten nabarmendu da fisikari gernikarra. Argazkiekin ez, marrazkien marrazkiarekin osatu du Unai Iturriagak Etxebarriaren gaineko kontrazala.

Jexux Larrañaga Arriola antropologian doktoreak idatzitako artikularekin osatu dugu zenbakia. Larrañaga Arriolak neurozientzien

goraldiaren atzean dagoena aztertu du: neurozientziaren argitan, garunaren funtzionamenduak gizakiaren funtzionamendua azal dezakeela sinetsarazten digun hezkuntza eta kultura sistema elikatzen da eta gizartearen beraren testuinguru soziohistorikoaren eraginak erabat indargabetzen dira, horrekin eredu neoliberalaren aldeko diskurtsoa indartuz eta hedatuz gure artean.

Bukatzeko, *Egunen gurplean* sailean, idazle berri bat dakarkigu: Alba Garmendia filosofian doktoregaia. Zenbaki honetatik aurrera Glocalia atala osatuko du, eta Jaime Altunak Soziolinguistika atalean eta Itziar Ugartek Kultura eremuan egin legez, gaurkotasunari errepassoa emango dio.